

UDAKO LANALDIA

Bakarne Odriozola eta Gurutze Yarza

Azko udan, Afrikako bi herrialdetan lanaldi batzuetan parte hartzen izan ginen bi hernaniar: Gurutze Yarza, Eritrean, eta Bakarne Odriozola, Malin. Biek ere beti izan dugu horrelako bizipen edo esperientziaren bat izateko gogo; nahiz eta biak bide desberdinetatik ibili, helburua bera izan dugu.

Adibidez, ni, Gurutze, URRATS Hernaniko misio taldeko partaidea naiz duela hamar bat urte, eta beti ibili izan naiz hirugarren munduko gaietan lanean. Era berean, ni, Bakarne, maiz ibilia naiz munduko bazterrak ezagutzen eta bertan gertatzen diren arazoez jabetzen eta kezkatzen; baina iaz, beste ikuspegi bat ezagutzeko asmoz joan nintzen. Gure ametsetako bat misioen bizipena izatea zen; horregatik, joan den urtean Afrikara joateko aukera izan genuenez, saiatzea erabaki genuen. Gure helburua zen itzuleran han bizi izan genuenaren berri emanez, besteei kontatuaz, sentsibilizazio lana egitea, herri haietan bizi duten egoera jakinaraztea eta herrialde haien alde lan egiten jarraitzea, noski.

Bizipen hau izateko gogoz ginen, beraz, biak, eta Elizbarrutiko Gazte Idazkaritzak, Misio Ordezkaritzak eta Karitasek osatzen duten Plataformak antolatutako lanaldien berri izan genuelarik, haiekin harremanetan jarri eta eskaera egin genien. Lanaldietara joateko baldintzak betetzen genituen, onartu egin gintuzten eta halaxe hasi ginen lanean.

Gipuzkoa osoko 18 lagun bildu ginen denera, eta, elkar ezagutu ostean, lanean jarri diru-laguntzak lortzeko. Erantzuna izugarri ontzat jo genezake, batik bat Hernaniko herriari dagokionez.

Lanaldiak lau herrialdetan egin ziren: Chiapas, Ekuador, Eritrea eta Malin. Lurralde bakoitzera lau edo bost laguneko taldetan joan ginen. Lehen esan bezala, bakoitza lanaldi banatan egon ginen: Gurutze, uztailan, Eritrean, eta Bakarne, abuztuan, Malin, biak Afrikan. Nahiz eta herrialde desberdinetan ibili, oso antzeko esperientziak bizi izan genituen, proiektu, helburu edo lanerako eginkizunak antzekoak izan baitziren. Denok dakigunez Afrika askotariko lurraldea da, herrialde, kultura, etnia eta ohiturak oso desberdinak baitira ipar, hego, mendebal eta ekialdean. Guk bi gune besterik ez genituen ezagutu zuzenean, Eritrea mendebaldeko muturrean, "Afrikako adarrean", batak, eta, besteak, berriz, Mali, Afrikako "tripa gainean".

Bi mundu zeharo desberdinetan murgildu ginela esan genezake, kontinente berean baina errealitate desberdinetan. Afrika osoan ikusi eta bizi dira miseria, beharra, pobrezia, gaitzak; hala ere, nahiz eta egoera gordin horietan bizi, duintasunean, eskuzabaltasunez eta bizipenen alaitasunean aberats bizitzen irakatsi ziguten bertan.

Idea bat azpimarratu nahi genuke lanaldian parte hartu dugun guztiok, bai Afrikako eta Erdialdeko Amerikako herrietan, guk emandakoa baino garrantzitsuagoa izan dela haiengandik jaso duguna; adeitasuna, laguntasuna, elkarkidetzak, izadi eta ama lurrari errespetua irakatsi digute, eta edozein arazo txiki zein larriren aurrean neurriz jokatzeko.

ERITREA

Eritreak 117.600 km²-ko azalera du eta lurralde txikia dela esan genezake. Eritrea "Afrikako adarrean" kokaturik dago; Sudan, Etiopia eta Somaliarekin egiten du muga, eta munduko herrialderik behartsuenetakoa da. Duela hiru urte lortu zuen Etiopiarrekiko independentzia hogeita hamar urte gerran egon ostean, eta oraindik gudaren ondorioak nabarmenak dira. Egoera oso gogorra eta zaila da, herri asko suntsiturik daude, gizon ugari dago oraindik Etiopian atxiloturik, emakume askok senar eta semeak gudan galdu dituzte...

Eritrean zazpi etnia daude, eta hizkuntza ofiziala tigrina den arren, etnia gehienek dute beren hizkuntza propioa. Bertako dirua nakfa da. Geografikoki hiru zati ezberdinetan banaturik dagoela esan genezake; mendia, goi-ordokia eta lautada edo basamortua. Ni goi-ordokian egon nintzen 1.900 metroko garaieran dagoen herri txiki batean, Mai Mine herrian hain zuzen. Bertako biztanleak tigrinak dira eta haien hizkuntza tigrina da. Arraza horretako jendea oso polita da; triginak omen dira, somaliarrekin batera, Afrika osoko ederrenak.

Mai Minek 5.000 biztanle inguru ditu, gehienak emakumeak eta haurrak. Lurra oso malkartsua da, eta, nekazaritza egitea ia ezinezkoa denez, giza laguntzatik bizitzera beharturik daude. Hilabetean biztanleko 10 kilo irin ematen diete Nazio Batuetakoek. Urte osoan duten uzta bakarrak herrialdeko beharren ehuneko berrogei besterik ez du asetzen. Horregatik dute giza laguntzaren beharra; laguntzarik gabe, goseak hilko lirateke asko eta asko. Urte osoan uztailean bakarrik egiten du euria eta hilabete horretan egindako lanak emango die urte osoan jateko izango duten uzta bakarra.

Mai Minen gure eginbeharra oilategiak eraikitzea izan zen. Emakumeen garapen eta sustapenerako proiektu baten baitan aritu izan ginen lanean: 16 oilategi eraiki genuen, emakume alargun edo senarrik gabeko amei zuzendutako proiektu batean, hain zuzen. Mai Mineko emakumeak miseria latzean murgildurik bizi dira; euren gurasoek beharturik, oso gazte ezkontzen dira, 11-12



Mai Mineko emakumeek asko ibili behar izaten dute ura lortzeko.

urterekin, berehala jaiotzen da lehen haurra, eta ondoren beste bat, eta horrela zortzi bat izan arte.

Proiektu horien helburua: emakumeek zertatik bizi eta jan izan, hau da, Mai Mineko emakume baztertuentzat ekonomia duin eta burujabea sortzea. Oiloek jarritako arrautzak merkatuan salduz elikatu eta bizi daitezke oilategiei esker. Oilategi bakoitzak 150 oilo eta sei hilabeterako pentsua eskaintzen die.

Oilategiak eraikitzeko esperientziak bertako bi gizonzuekin lan egiteko aukera eman zigun: Shemendy eta Nebay. Egunean ordu batzuk igarotzen genituen elkarrekin lanean. Hasieran oso gogorra egiten zitzaion gu, "Europar zuri aberatsak", beren esanetara egotea eta eurek, "Afrikar beltz behartsuak", guri aginduak ematea. Baina hasierako harridura gainditu eta oso gustura aritu ginen elkarrekin lanean. Elkarlanean aritzeak Mai Mineko biztanleen errealitatea gertutik ezagutzeko aukera eman zigun, eta, nola ez, eraiki genituen oilategietako familiekin harreman zuzena izatekoa ere bai. Hiru familiarekin izan genuen harreman zuzena eta eurentzako garrantzitsuena gu beraien etxola xumeetan sartu, berek eskainitako kafea hartu eta euren hurrekin jolasean ibiltzea izan zen; horixe da benetan eskertu zigutena.

Karidadeko alaben lekaime etxea genuen ostatu; bestela, ezin izango genuen bertan

hartu. Lekaime hauek ere bertakoak dira, hau da, tigriñak. Oso harrera ona egin ziguten eta primeran tratatu gintuzten; nahiz eta hizkuntza oztopo handia izan, beren artean tigriña mintzatzen zuten eta gurekin italiera, elkar ulertzea lortu genuen eta oso harreman polita sortu zen lekaimeen eta gu bosten artean.

Lekaimeak duela zazpi urte heldu ziren bertara hango biztanleek hala eskatuta. Bost lekaime dira eta lan handia egiten dute benetan. Zentroa Manos Unidasek emandako diru-laguntzarekin eraiki zen eta bertan anbulatorioa, haurtzaindegia eta emakumeen garapenerako zentroa daude. Anbulatorioan haur eta emakumeentzako kontsulta izaten da goizetan, eta arratsean larrialdiak, erditzeak, txertoak... Emakumeen garapenerako zentroan hogeit bat neska eta emakumek lan egiten dute, josten edo saskiak egiten. Lekaimeek irakatsi diete lan hauetan, eta



Gurutze oilategia egin zitzaion familiarekin (emakumea, Soudy; haurra, Johanesse eta mutila, Atajhaldy) eta eraikitzeko lanetan langile batzuekin, Shemendy eta Nebayrekin.

Monjen zentruan emakumeak lanean, mantelak bordatzen eta zestoak egiten aritzen ziren.


salmenten arabera ordaintzen diete, baina soldata duina jasotzen dute beti. Haurtzaindegira berrehun haur inguru joaten dira; gehienak bertan lan egiten duten emakumeen haurrak dira.

Larunbatetan azoka egiten da herrian, eta inguruko jende guztia etortzen da oinez, mendi artetik, bi, hiru edo lau ordu oinez ibilita. Azokan denetarik aurki daiteke, jantziak, ereiteko haziak, eta animaliak, ahuntzak, astoak eta oiloak, gehienbat. Bakoitzak duena eramaten du saltzera, eta berentzat oso egun garrantzitsua da, aste osoan bestela lortu ezin dituzten hainbat gauza eros baitezakete.


Igandea meza eguna da. Mai Mineko biztanleak kristau koptoak dira eta iaz eraiki zuten eliza, fedea oso garrantzitsua baita eurentzat. Elizkizunek bost orduko iraupena

izaten dute, eta alde batean emakumezkoak eta bestean gizonezkoak jartzen dira, denak oinutsik.

lazko uda oso berezia eta polita izan zen niretzat, Mai Mineko herritarrekin bizi izatea, euren etxeetan egotea, haurrekin jolasean ibiltzea, euren esanetara lanean aritzea ... oso aberasgarria izan zen. Biziki oroitzen dut haur haien begirada irribarretsua, jolasteko gogoa, jostailuak egiteko ilusioa. Lau eta bost urteko neskatxa haiek, anaia-arreba gaztetxoak zaintzen. Hango emakumeak gogoratzen ditut, bereziki, hainbeste sufrimenduri aurre eginez etxera gonbidatu eta zuten guztia eskaintzen zigutenak, halako txera eta maitasunez prestatutako kafe goxo hura. Pozik oroitzen ditut lekaimeen tailer txiki hartan josten, brodatzen eta saskiak egiten aritzen ziren neskatxa eta emakumeak.



Mai Mineko haurrek jostailurik ez dutenez aurkitutako pote, lata eta makilekin egiten dituzte jostailuak.



Soudy bere semea Johannesse besoetan bularra ematen ari den bitartean, guri kafe goxo prestatzen.

MALI


Maliko erresumak 1.240.000 km²-ko azalera du eta gaur egun 10,6 miloi biztanle ditu. Diru berezia erabiltzen dute, CFA frankoa, eta errepublika parlamentarioa dela esan daiteke.

Etnia edo herri ugariz osatua da, eta hortik dator hizkuntza anitzen aberastasuna. Frantsesa jotzen da hizkuntza ofizialtzat, baina gehien entzuten dena banbara da; halere, senufo, sarakoe, dogon, peul, targi, arabe eta beste zenbait hizkuntza ere mintzatzen dira. Gezurra badirudi ere egun, haurren hilkortasun maila %18n dago eta bizi itxaropena 50 urtekoa da. Hango egoeraren larritasunaz jabetzeko, aipagarria da sendagile bakar bat dutela 6.000 biztanleko.

Mali Saharako basamortuaren hegoaldean kokatuta dago eta Benin, Togo, Niger, Ghana, Boli Kosta, Sierra Leona, Ginea eta Senegalekin ditu mugak. Lurralde zabal honetan, basamortua, basoa, parke naturalak, lautadak eta, batez ere, hain garrantzitsua den Niger ibaia daude. Gaur egun Maliko gune ezagunena Dagon ingurua da, han baitago herrialdea hain famatu egin duen "Fatimaren Eskua", mendizaleen ametsetariko bat, eta nola ez, iparraldeko Tonbuktu, literatura eta zinema munduko karabanen hiri misterioitsua. Garrantzitsua da Djenee ere, bere mezkita erraldoiarekin; munduan dagoen buztinezko mezkitarik dotoreena dute, izan ere, Nigerren adar Debo lakuko Djenee uhartean.



"Peul" tribuko gaztea. Nomadak dira, abeltzainak eta artzainak.



Herriko nagusiak eta agintariak: "griots" erlijio tradizionaleko nagusia (lurrean eserita), eskolako maisua, alkatea edo batzordeko nagusia eta katekista. Zutik, "balafar" jolea.

Malin era guztietako jainkoak gurtzen dituzte; animistak (dogonak), erlijio tradizionalak (griots eta aztiak), musulmanak, ebanjelistak... baina denek dute elkartzeko puntu bat, poligamia, erabat onartua eta goraipatua, gainera.

Izurriteak eta lehortekak direla medio, baserri inguruetatik jende asko eta asko jaisten da hirietara, eta lekualdatze horrekin batera arazo larriak ugaritu egiten dira: haurtzarorik gabeko haur langileen arazoak, gaitzak, herrialde periferikoen handitzea eta prostituzioa, besteak beste. Baina, era berean, gizarte laguntza garatzen ari da, eskolak eraikitzen ari dira, baita gaixoei laguntzeko zentroak ere, hori guztia nazioarteko laguntzari esker.

Afrikako beste muturrean bezala, emakumeak dira ekonomiaren pisua beren gain daramatenak, berek egiten dituzte etxeke lanak, berek mantentzen familia, hazienda eta komunitatea; azoketako salmentan, lurra landu eta zainduz, ura garraiatuz, irakasle moduan edo erizaintza eskoletan, emakumeak dira haurrak bizkar gainean hartu eta Mali iraunarazten saiatzen direnak. Kontuz jasotzen dute artatxiki hazia hurrengo urteko uzta arte, eta urria bada, handik edo nondik saiatuko dira "doloa" (artatxikiz eginiko etxeke garagardoa) egiteko behar duten neurria prest edukitzen.

Uholdeak, gerra, miseria ... denetarik jasan duen herrialde honetan ikusgarria da irribarre egiteko duten erraztasuna, duintasuna, eta bizi poza. Itxuraz, behintzat, beti alai; alaitasun horrekin eskerrak ematen dituzte mundu honetan bizitzeko duten aukerarengatik eta beti eskuzabal izaten dira bertakoekin zein atzeritarrekin. Kolore biziko arropak erabiltzen dituzte, turbanteak, zapi-koloretsuak, egunerokotasun ilunari buelta eman nahian edo; benetan liluragarria da kolore nahasketaren festa.

Malirako gure lan proiektua, hasieran, ur-kanalizazioak egitea zen, baina material guztia prest izan arren, eguraldiak galarazi egin zuen gure jarduera. Izan ere, euri sasoia inoiz baino lehenago etorri zen, gogor gainera, eta, ondorioz, plangintza aldatu beharra izan genuen. Horrela erabaki genuen basoak birlandatzeari jo eta su ekitea. Latza da, benetan, zuhaitz ezarekin duten arazoa ingurune askotan; izan ere, egurra beharrezkoa dute sutarako, eraikuntzarako, altzariak egiteko, lanabesak moldatzeko, eta baso soiltze neurrigabeak nabarmen areagotu dira denbora gutxian. Honen ondorioak aski ezagunak zaizkigu, zoritxarrez. Batik bat fruitu arbolak landatu genituen, azkar hazten direlako eta birlandaketarekin elikadura hobe daitekeelako. Elkarlanean aritu ginen bertakoen esanetara, eta, lan egoera guretzat astuna izan arren (hezetasun handia, beroa,



Azokara bidean, orduak ematen dituzte joan-etorrian.

egokitzeko arazoak, zomorroak...), oso gustura egin genituen bete beharrekoak eta

irakaspen harrigarriak jaso genituen haiengandik.



Haur askorentzat gu izan ginen lehenengo txuriak, beldurtu ere egiten ziren.

Benetan eskertu genuen gurekiko izandako adeitasuna eta beren eguneroko bizitzan parte hartzen utzi izana. Elkarrekin lan eginez, gizakiak oraindik gure artean konpontzeko gai bagarela ohartu ginen, eta orobat ohartu ginen bizitzeko ezinbesteko ez ditugun luxu askori itsatsita gaudela eta gauza arruntez gozatzea zer den gogoan izan behar genuela beti.

Biok ikusi dugu garbi eta gure ingurukoek ere sumatu dute esperientzia honek era berezi batean ukitu gaituela. Guretzat jende behartsuak izen, abizen eta aurpegia du orain, eta bizipen honek jende behartsuengandik ikasi eta baloratu beharreko gauzez ohartzeko balio izan digu. Edozeini gomendatu nahi genioke, gogoia eta aukera izanez gero, esperientzia ahaztezin hau bizitzea, ikustea eta ikastea, bakoitzak bere buruari zor dion zerbait dela uste baitugu. Benetan merezi duen esperientzia da! Bestalde, goraiatu beharra daukagu, Hernaniko jendeak gukanako izan duen begirunea: benetan eskertzen dizuegu zuen arreta, pazientzia, eskuzabaltasuna eta solidaritatea. Mila esker etxekoei, lagunei, ezagunei eta ezezagunei!